Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de Protección de Datos

PRIBATUA
Asociación Vasca de Privacidad y Seguridad de la Información
Pribatutasun eta Informazio Segurtasuneko Euskal Elkartea

# DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ETA PRIBATUTASUN ETA INFORMAZIO SEGURTASUNEKO EUSKAL ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZAKO ESPARRU HITZARMENA

# CONVENIO MARCO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS Y LA ASOCIACIÓN VASCA DE PRIVACIDAD Y SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN

Vitoria-Gasteizen, 2013ko maiatzaren 8an

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de mayo de 2013

**BILDU DIRA**

**Alde batetik:** Miguel Javier García Larragan jauna, Asociación Vasca de Privacidad y Seguridad de la Información / Pribatutasun eta Informazio Segurtasuneko Euskal Elkartearen (aurrerantzean PRIBATUA) lehendakaria, elkartearen estatutuen 23. artikuluak esleitutako eskumenez baliatuz, eta elkartearen ordezkaritzan.

**Eta beste aldetik:** José Ignacio Pariente de Prada jauna, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren (aurrerantzean DBEB) zuzendaria, Bulegoaren ordezkaritza eginez, otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 15. artikuluan xedatutako eskumenak kontuan hartuta bere izendapena egin zuen 68/2012 Dekretuari jarraiki (2012ko maiatzaren 14ko 93 zk.ko EHAA).

Bakoitzak bere erakundearen izenean eta ordezkaritzan jarduten du, eta biek aitortzen diote elkarri Lankidetza Hitzarmen hau izenpetu ahal izateko jarduteko legezko gaitasuna. Era berean,

**REUNIDOS**

**De una parte:** D. Miguel Javier García Larragan, Presidente de la Asociación Vasca de Privacidad y Seguridad de la Información / Pribatutasun eta Informazio Segurtasuneko Euskal Elkartea (en adelante PRIBATUA), en el ejercicio de las competencias atribuidas en el artículo 23 de sus Estatutos, y como representante de la Asociación.

**Y de otra parte:** D. José Ignacio Pariente de Prada, Director de la Agencia Vasca de Protección de Datos / Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (en adelante AVPD), actuando en representación de la misma, en virtud de su nombramiento por Decreto 68/2012 (BOPV nº 93 de 14 de mayo de 2012) acorde con las atribuciones conferidas según artículo 15 de la Ley 2/2004, de 25 de febrero.

Las partes actúan en nombre y representación de sus entidades respectivas, reconociéndose mutuamente la capacidad jurídica de obrar necesaria para la celebración del presente Convenio Marco de Colaboración y,

## ADIERAZTEN DUTE

**Lehenengoa.-** PRIBATUA irabazi asmorik gabeko elkartea bat dela, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen eta bestelako lege osagarrien babesean sortua, nortasun juridiko propioa eta jarduteko erabateko gaitasuna dituela, besteak beste, honako eginkizunak betetzeko:

i . Elkarteko kideen artean zabaltzea pribatutasunaren eta informazioaren segurtasuneko adituen lanbidearen garapenean ondorioak dituzten legedia, araudiak, estandarrak, kalitateari buruzko arauak, metodologiak eta jardunbide egokiak, bai eta horietan egiten diren aldaketak ere, helburu horiek bete daitezen sustatuz.

ii . Pribatutasunaren eta informazioaren segurtasunekin zer ikusia duten legedia, araudia, estandarrak, kalitateari buruzko arauak, metodologiak eta jardunbide egokiak sustatzea, zabaltzea eta horien gaineko prestakuntza eskaintzea erakunde pribatu nahiz publikoei eta tartean daude profesional guztiei, arloko alderdi guztiak kontuan hartu beharraren kontzientziazioa sustatzeko eta mekanismo eta neurri egokien inplementazioa errazteko; eta, horrela jokatuta, informazioaren babesa eta legezko betebeharrak betetzen direla bermatzeko eta bezeroen eta herritarren konfiantza lortzeko, haien produktuei eta zerbitzuei balio erantsia emanez.

iii . Herritarrei azaltzea eta kontzientziazioa lantzea, datu pertsonalen babesari buruzko eskubideei dagokienez eta informazioaren teknologien erabilerari

## EXPONEN

**Primero.-** Que PRIBATUA es una asociación sin ánimo de lucro, creada al amparo de la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi y demás normas complementarias, con personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar para el cumplimiento de sus fines, entre otros, los siguientes:

i . Difundir entre los asociados la legislación, normativas, estándares, normas de calidad, metodologías y buenas prácticas con implicaciones en el desarrollo de la profesión de expertos en seguridad de la información y privacidad, y cuantas modificaciones se realicen a las mismas, promoviendo su efectivo cumplimiento.

ii . Fomentar, difundir y formar a las organizaciones, tanto públicas como privadas, y, en general a todos los profesionales implicados, en todos los aspectos relacionados con la legislación, normativas, estándares, normas de calidad, metodologías y buenas prácticas relativas a la seguridad de la información y la privacidad, con objeto de promover su concienciación con respecto a la importancia de contemplar adecuadamente todos los aspectos involucrados y de facilitar la efectiva implementación de los mecanismos y medidas pertinentes, como medio para garantizar la salvaguarda de la información y el cumplimiento de las obligaciones legales y lograr la confianza de los ciudadanos y clientes, añadiendo valor a sus servicios y productos.

iii . Difundir y concienciar a la ciudadanía en general en lo que respecta a sus derechos en materia de protección de datos de carácter personal y a un uso

buruz; erabilera egokia izan dadin norberaren pribatutasuna babesteko eta hirugarren pertsonei buruzko informazioarekin errespetuz jokatzeko.

adecuado de las tecnologías de la información para salvaguardar su privacidad y respetuoso con la información concerniente a terceras personas.

iv . Pribatutasunaren eta informazioaren segurtasunaren gaineko edozein alderdiri buruzko ikerketak eta azterlanak egitea, legedia, araudia, estandarrak, kalitateari buruzko arauak, metodologiak eta ezarpen-jardunbide egokiak eguneratzeko ekarpenak egiteko.

iv . Realizar actividades de estudio e investigación sobre aspectos relacionados con la seguridad de la información y la privacidad, con objeto de contribuir a la permanente puesta al día de la legislación, normativas, estándares, normas de calidad, metodologías y buenas prácticas de aplicación.

v . Komunikazio eta lankidetzarako kanalak finkatzea elkarteko kideen, hitzarmenaren xede diren gaietan eskumena duten administrazio publikoen, unibertsitateen, ikerketa zentroen, elkarteen, enpresen eta, oro har, edozein erakunde publiko edo pribatuen artean, elkartearen xedeak betetzeko.

v . Establecer canales de comunicación y colaboración entre los asociados y las Administraciones Públicas con competencias en las materias objeto de la Asociación, universidades, centros de investigación, asociaciones, empresas y, en general, cualquier entidad pública o privada, para el cumplimiento de los fines de la Asociación.

vi . Laguntza emateko eta aholkularitza eta informazio zerbitzua emateko jarduerak antolatzea, herritarren, entitate publiko eta pribatuen eta elkarteko kideen zerbitzura.

vi . Organizar actividades de carácter asistencial y de prestación de servicios de asesoramiento e información al servicio de los ciudadanos, entidades públicas y privadas, así como de los asociados.

**Bigarrena.-** Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 10. artikuluko 1. paragrafoak xedatzen duela DBEB zuzenbide publikoko entea izango dela, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoa izango dituela, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe beteko dituela bere eginkizunak; eta eginkizunak honako hauek direla funtsean:

**Segundo.-** Que la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de ficheros de datos de titularidad pública y de creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, en su artículo 10 apartado 1, crea la AVPD como ente de derecho público, con personalidad jurídica propia y plena capacidad pública y privada, que actúa con plena independencia de las administraciones públicas en el ejercicio de sus funciones; siendo éstas, entre otras, las siguientes:

i . Datuak babesteko indarrean dauden legeak bete daitezen zaintzea eta nola aplikatzen diren kontrolatzea, batez ere, ukituen eskubideei dagokienez, titularrak diren datuetara iritsi, datuak zuzendu, datuen aurka egin eta datuak indarrik gabe uzteko.

ii . Lege eta erregelamenduetan zehazturik dauden baimenak ematea, eta, beharrezkoa bada, datuen tratamendua datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen legediko printzipioetara egokitzeko beharrezko jarraibideak ematea.

iii . Tartean direnen eskariei eta erreklamazioei kasu egitea eta datu pertsonalak tratatzea dela-eta dituzten eskubideei buruzko informazioa ematea pertsonei.

iv . Herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek edo bestelako pertsona fisiko edo juridikoek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten kontsultei eta txosten-eskeei erantzutea.

v . Datu pertsonalen babesaren gaineko kulturaren zabalkundea egitea, herritarrak sentsibilizatuz eta prestakuntza nahiz jardunbide egokiagoen erabilera bultzatuz erakunde publikoetako langileen artean.

i . Velar por el cumplimiento de la legislación vigente sobre protección de datos y controlar su aplicación, en especial en lo relativo a los derechos de los afectados respecto al acceso, rectificación, oposición y cancelación de los datos de carácter personal de los que son titulares.

ii . Emitir las autorizaciones previstas en las leyes y reglamentos, así como dictar, en su caso, las instrucciones precisas para adecuar los tratamientos a los principios de la legislación vigente en materia de protección de datos de carácter personal.

iii . Atender las peticiones y reclamaciones formuladas por los afectados; además de proporcionar información a las personas acerca de sus derechos en materia de tratamiento de los datos de carácter personal.

iv . Atender todo tipo de consultas e informes que, con relación a la protección de datos de carácter personal, le sean solicitados por las administraciones públicas, instituciones y corporaciones, así como por otras personas físicas o jurídicas.

v . Difundir y extender la cultura de la protección de datos de carácter personal, sensibilizando a la ciudadanía y potenciando la formación y la adopción de mejores prácticas por parte de los trabajadores de las instituciones públicas.

Entitate biek, datuen babesaren arloan lankidetzan aritu beharraren jakitun, esparru

Conscientes ambas partes de la necesidad de cooperar en el ámbito de la protección de datos

hitzarmen hau izenpetzen dute eta ondokoa hitzartzen dute:

de carácter personal formalizan el presente Convenio Marco que llevan a efecto con arreglo a las siguientes

## ESTIPULAZIOAK

### LEHENENGOA. Xedea.

Esparru hitzarmen honen xedea da DBEBren eta PRIBATUAren arteko lankidetza hitzarmen bat finkatzea datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearen gainean zabalkundea, kontzientziazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza sustatzeko eta bultzatzeko, eta, ondorioz, eskubide horrekiko errespetua ere bai.

### BIGARRENA.- DBEBren betebeharrak.

DBEBk honako jarduera hauek gauzatuko ditu:

i . Datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearekin lotuta DBEBk sustatutako ekimenen berri ematea PRIBATUARI, erakunde bien arteko lankidetzarako baliagarriak izanez gero, erakunde bien artean egiteko moduko jarduerak aztertu eta ahalbideratuz.

ii . Datuak babesteko oinarrizko eskubideari buruz PRIBATUAK antolatzen dituen hitzaldiak, biltzarrak, ikastaroak, mintegiak, jardunaldiak eta topaketak egin, abian jarri eta horien zabalkundea egitean laguntzea PRIBATUAK laguntza eskatuz gero, eta DBEBren interesekoak badira.

iii . PRIBATUAK egindako eskuliburuak, gidak, gomendioak eta, oro har, datu pertsonalen babesari buruzko testuak egiten eta zabaltzen laguntzea eta

## ESTIPULACIONES

### PRIMERA.- Objeto.

El objeto del presente Convenio Marco es el establecimiento de un marco de colaboración entre la AVPD y PRIBATUA con el fin de fomentar y promover la divulgación, concienciación, sensibilización y formación con respecto al derecho fundamental a la protección de datos de carácter personal y, por consiguiente, el respeto al citado derecho.

### SEGUNDA.- Obligaciones de la AVPD.

La AVPD realizará las siguientes actuaciones:

i . Trasladar a PRIBATUA aquellas iniciativas impulsadas por la AVPD con relación a la protección de datos de carácter personal y de las que pudieran derivarse colaboraciones entre ambas entidades, estudiando y facilitando la realización de actividades conjuntas.

ii . Participar en la divulgación, puesta en marcha y realización de conferencias, congresos, cursos, seminarios, jornadas y encuentros que PRIBATUA organice sobre el derecho fundamental a la protección de datos de carácter personal, previa petición de PRIBATUA y que sean de interés para la AVPD.

iii . Colaborar y asesorar en la elaboración y difusión de manuales, guías, recomendaciones y, en general, otros textos relacionados con la protección de

aholkularitza ematea, PRIBATUAK laguntza eskatuz gero, eta DBEBren interesekoak edo baliagarriak badira.

iv . PRIBATUARI baimena ematea PRIBATUAk datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearen gaineko prestakuntza eta/edo zabalkunde jarduerak egiteko, DBEBk egindako eskuliburuak, gidak, gomendioak edo bestelako materialak erabiltzeko eta horien zabalkundea egiteko, DBEBk horretarako baimena ematen badio, eta berariaz adierazita nor den egilea.

**HIRUGARRENA.- PRIBATUAren betebeharrak.**

PRIBATUAk honako jarduerak burutuko ditu:

i . DBEBk datu pertsonalen babesaren esparruan gauzatzen dituen ekimenen zabalkundea egitea eta horiek sustatzea.

ii . Datuak babesteko oinarrizko eskubideari buruz DBEBk antolatzen dituen hitzaldiak, biltzarrak, ikastaroak, mintegiak, jardunaldiak eta topaketak egin, abian jarri eta horien zabalkundea egiten laguntzea DBEBk laguntza eskatuz gero, eta PRIBATUAren interesekoak badira.

iii . Hitzarmen honen babespeko jardueretan parte hartuko duten elkarteko kideak proposatzea DBEBri.

iv . DBEBri baimena ematea DBEBk datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearen gaineko prestakuntza eta/edo zabalkunde jarduerak egiteko, PRIBATUAk egindako eskuliburuak, gidak, gomendioak edo bestelako

datos de carácter personal elaborados por PRIBATUA, previa petición de PRIBATUA y que sean de utilidad o interés para la AVPD.

iv . Permitir a PRIBATUA el uso y distribución de manuales, guías, recomendaciones u otros materiales elaborados por la AVPD, previa autorización de la AVPD y con expresa mención a su autoría, en las actividades de formación y/o difusión del derecho fundamental a la protección de datos de carácter personal que PRIBATUA lleve a cabo.

**TERCERA.- Obligaciones de PRIBATUA.**

PRIBATUA realizará las siguientes actuaciones:

i . Difundir y promover las iniciativas que la AVPD lleve a cabo en materia de protección de datos de carácter personal.

ii . Participar en la divulgación, puesta en marcha y realización de conferencias, congresos, cursos, seminarios, jornadas y encuentros que la AVPD organice sobre el derecho fundamental a la protección de datos de carácter personal, previa petición de la AVPD y que sean de interés para PRIBATUA.

iii . Proponer a la AVPD a los asociados que participarán en la realización de las actividades al amparo del presente Convenio.

iv . Permitir a la AVPD el uso y distribución de artículos, manuales, guías, recomendaciones, proyectos de investigación u otros materiales elaborados por PRIBATUA, previa autorización de PRIBATUA y con expresa

materialak erabiltzeko eta horien zabalkundea egiteko, PRIBATUAk horretarako baimena ematen badio, eta berariaz adierazita nor den egilea.

mención a su autoría, en las actividades de formación y/o difusión del derecho fundamental a la protección de datos de carácter personal que la AVPD lleve a cabo.

**LAUGARRENA.- Urteko jarduera plana, egitasmoak eta jarduera zehatzak.**

Datu pertsonalak babesteari buruzko zenbait egitasmo eta ekintza zehaztu ahal izango dira Hitzarmen honen esparruan. Era berean, urtero eta ekitaldi bakoitza hasi aurretik, urteko jarduera plana erabaki ahal izango da.

Egitasmo, jarduera edo plan horiek zehazteko aldez aurretik nahikoa denbora eta behar den aurrekontua egongo dira. Aldeek adostuko dute zein izango den kostu ekonomikoa eta egitasmo, jarduera edo plan horietan bakoitzaren parte hartzea.

**CUARTA.- Plan de actuación anual, programas y acciones específicas.**

En el marco del presente Convenio podrán establecerse programas o acciones específicas en el ámbito de la protección de datos de carácter personal. Asimismo, con carácter anual y previo al comienzo de cada ejercicio, se podrá concretar el plan de actuación anual.

Dichos programas, acciones o planes deberán ser definidos con la suficiente antelación junto con el presupuesto que, en su caso, sea necesario, concretándose los costes económicos así como la participación en los mismos, de común acuerdo entre las partes.

**BOSGARRENA.- Hitzarmenaren jarraipena.**

Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea eratzen da lau kiderekin. Hitzarmena izenpetzen duen alde bakoitzak bi kide izango ditu. Alde bietako edozeinek eskatzen duen bakoitzean bildu beharko da Batzordea eta gutxienez urtean behin. Hona hemen Batzordearen eginkizunak:

i. Urteko jarduera plana, egitasmoak eta jarduera zehatzak zehaztea, halakorik badago, eta jarduera horiek nola gauzatu eta finantzatuko diren zehaztea.

ii. Planak eta egitasmoak betetzen direla egiaztatzeko jarraipena eta diru-baliabideen jarraipena egitea, halakorik egonez gero; eta, egoki ikusten bada, hobetzeko ekintzak proposatzea.

**QUINTA.- Seguimiento del Convenio.**

Se crea una Comisión de Seguimiento del Convenio integrada por cuatro miembros, dos en representación de cada una de las partes firmantes. Dicha Comisión se reunirá siempre que lo requiera cualquiera de las partes y como mínimo una vez al año y tendrá las siguientes funciones:

i. Concretar, en su caso, el plan anual de actividades, y los programas y acciones específicos, así como la forma de realización de las actividades y su financiación.

ii. Realizar un seguimiento del cumplimiento de los planes o programas y, en su caso, del destino de las asignaciones y la propuesta de acciones de mejora.

iii . Hitzarmenaren ezarpenaren eta interpretazioaren gainean egon daitekeen edozein gorabehera ebaztea.

iii . Resolver sobre cualesquiera otras cuestiones relacionadas con la aplicación e interpretación del Convenio.

Batzordearen idazkariak bileren akta jaso beharko du. Aldeen adostasunarekin hautatuko da idazkaria.

De cada reunión se levantará la correspondiente Acta por parte del Secretario de la Comisión, que será designado de común acuerdo entre las partes.

**SEIGARRENA.- Hitzarmenaren iraupena eta Hitzarmena bukatzeko arrazoiak.**

**SEXTA.- Vigencia del Convenio y Causas de resolución.**

Hitzarmen hau izenpetu eta hurrengo egunean egongo da indarrean eta bi urteko iraupena izango du. Epe hori automatikoki luzatu ahal izango da, kontratua bukatzeko honako arrazoietakoren bat egon ezean:

- Alde batek nahiz besteak kontratua idatziz salatzen badu, hiru hileko aurretiaz.
- Hitzarmenaren klausulak ez betetzea.
- Bi alderdiek hitzarmena azkentzea erabakitzea.

El presente Convenio entrará en vigor al día siguiente al de su firma y mantendrá su vigencia durante dos años prorrogables automáticamente por períodos idénticos, salvo que medie alguna de las siguientes causas de resolución:

- La denuncia de cualquiera de las partes formalizada por escrito con tres meses de antelación.
- El incumplimiento de las cláusulas del Convenio.
- El mutuo acuerdo de las partes.

Alde bietako edozeinek hitzarmena bukatzea erabakitzen badu, idatziz jakinarazi beharko dio beste aldeari, eta jakinarazpena egin eta hiru hilabeteko epean bukatu egingo da hitzarmena.

En el supuesto de que alguna de las partes decida denunciarlo lo notificará por escrito a la otra, perdiendo su vigencia a los tres meses de dicha notificación.

Hala ere, hitzarmen honen babesean alde biek adostutako urteko jarduera planek eta programak edo jarduera zehatzek indarrean segituko dute bertan erabakitakoa bukatu arte.

No obstante lo anterior, los planes de actuación anual, así como los programas o acciones específicas acordados al amparo del presente Convenio, mantendrán su vigencia hasta la finalización de lo acordado en los mismos.

**ZAZPIGARRENA.- Hitzarmenaren nondik norakoa eta jurisdikzio eskuduna.**

**SÉPTIMA.- Naturaleza y jurisdicción competente.**

Hitzarmen honek administrazio-izaera du eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 2007ko

El presente convenio tiene naturaleza administrativa, quedando excluido del ámbito

urriaren 30eko 30/2007 Legearen ezarpen eremutik kanpo geldituko da, lege horren 4.1.c) artikuluaren arabera.

Hitzarmen hau interpretatzean eta gauzatzean sor daitezkeen desadostasunak, Jarraipenerako Batzordeak konpontzen ez baditu, administrazio-auzietarako jurisdikzioak ebatziko ditu.

Ados daudela adierazteko, alde biek izenpetzen dute lankidetza hitzarmen hau, bikoiztuta, hasieran adierazitako tokian eta egunean, eta lankidetza hitzarmenaren ale bana hartzen dute.

de aplicación la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, al amparo del artículo 4.1.c) de la misma.

Las controversias que puedan surgir sobre la interpretación y ejecución que no sean resueltas por la Comisión de Seguimiento, se sustanciarán ante la Jurisdicción Contencioso Administrativa.

En prueba de conformidad, las partes intervinientes firman el presente Convenio Marco, por duplicado ejemplar y en el lugar y la fecha indicados en el encabezamiento, quedando un ejemplar en poder de cada una de las partes.

Izpta.: **José Ignacio Pariente de Prada**
Agencia Vasca de Protección de Datos / Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Izpta.: **Miguel Javier García Larragan**
PRIBATUA (Asociación Vasca de Privacidad y Seguridad de la Información / Pribatutasun eta Informazio Segurtasuneko Euskal Elkartea)